

ZENBAT BURU
Maritxu Loiola

ERREPORTAJEA
Abuztua lanean

BERBETAN
Ibon Arregi
San Bartolome
jaietako kartel
lehiaketaren irabazlea

BARREN

1999ko uztailaren 160
VII. urtea - 287. zkia

E L G O I B A R K T E K A R I A



Elgoibarko Nazioarteko XIII. Folklore Jaialdia

"Zelan dantzan egin? Burua gora gora, gerria arin arin" (Esaera Zaharra)

ZEZEN-BIDE

AUTO-ESKOLA

Auto, autobus, kamioi
eta motorrentzako
gida-baimenak



*67c I Orfro P:thcfl̄r:ua
(S1-b7,f Tf.Wr'ff:.(4.Trdrfrl!*



San Frantzisko, 43-1. — Tel: 943 74 27 20 — ELGOIBAR — Ego-gain, 2 behea (sarrera S. Andres — Tel: 943 20 34 45 — EIBAR

LYZAIDE

KAFETEGIA JATETXEA

Ospitale parean
Mendarozahal, z/g
Tel: 943 75 51 44/75 61 66
MENDARO



- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Bataioak
- Banketeak
- Enpresentzako jatorduak
- Urtebetetzeak
- Despedidak



Ondo pasa jaiaak!



MARITXU LOIOLA

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-Ixandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Agurn ospitaleko monjei

Guk geuk jartzen ditugu gure bizitzaren ardatzak egingo dugun ibilbidearen arabera. Asko eta asko gara zerbait eman orduko itzuleraren zain geratzen garenak, baina Jaungoikoaren izenean eta fedez gainezka egiten dugunean, j arrera oso bestelakoa izaten da. Hori da 130 urtean gure San Lazaro Ospitaleko monjek egin dutena; uztaillaren lean bete da ibilaldi luze horren urteurrena, eta orain, bokaziorik ezagatik, gero eta monja gutxiago dago, eta badirudi, datorren irailean hemendik joan egingo direla.

Beren buruez ez dute aipamenik egiteko ohiturarik, eta besteren batek eurretaz egindako goraipamenei ere ez diete jaramonik egiten. Baina kontuan izan behar dugu behartsuenei erantzuteko, euren egitekoa ezinbestekoa dela. Nahiz eta 130 urte hauetan egin duten guztia banan banan aipatu ez, aukera honetaz baliaturik, herri osoaren izenean gure esker ona azaldu nahi dut.

Asko eta asko izan dira hortik pasatu direnak, eta guztien izenak ezin aipatu, baina bai gure garaiko batzuk, eta euren egitekoak honako hauek izan dira: Sor Regina, Sor Honorina; honek hamaika abesti eder abestu dizkio Milagrosako Amabirjinari, baita Sor Laura... eta hain nagusia ez den Maria Gurucharri ere; horietaz gain, ezin ahaztu lapiko artean eta garbitokian egoten zen Sor Sabina; Sor Anak berriz, eskolaurrea eta berak hain maitea zuen eliza ondo zaindu zituen, kontuan harturik herriar guztien artean fedea zabalitzen ere ahalegindu zela. Horiek ezezik, baita beste hainbat eta hainbat arlo ere ukitu zituzten, baina luze-egia gerta ez dadin, ezin jarraitu.

Ordainik gabeko zenbat eta zenbat lanor-
du, eta horien artean azken orduko hainbat

gaixori jarritako arreta eta neska mutilen eskolak; baita nagusiei, familia behartsuei eta premia zuenari eskainitako laguntza ere... Guztia maitasun handiz eta sarritan, "on eginaren pagua atosteko palua". Eurei eskerrak egin du herriak eta baita agintariek ere, behartsuei buruzko hausnarketa, beti zerbitzu ona eskaintzearen alde, nagusien bizitza kalitatea hobetuz. Herrira etorri zirenean, behar ziren baldintzak betetzen ez zituen ospitale zaharra berritu zuen Udalak. San Vicente de Pauleko monjak ere etorri ziren, eta urte batzuetara, herriko umerik behartsuenak eskolatu beharra ikusi eta, 1972ra arte iraun zuen eskola jarri zuten. Eta guzti hori ezezik, oraintsu, gaurkotutako egoitzari dagozkion biderapenak ere egin zituzten, eta hor dugu gaur egungo Zaharren Egoitza.

Orain, berriz, dena dirutan neurtzen den honetan, diruak betetzen ez duen erronka handi baten aurrean aurkitzen gara; hau da, horiek urratutako bidearen jarraipena nola egin, alegia.

*"Amak izan zarete, bihotz saniurrez
amarik ez zutenentzat;
lagun leialak, bihotz zabalez
bakarrrik zeudenentzat;
aterpe bero, bihotz handiaz
etxerik ez zutenentzat,
bake baretsu eta irripar goxodun
gaixo eta larrituentzat
atseden leku lasai eta goxoa
herriko behartsuenentzat.
Agur, lagunak, kristau fededun
eta lekaitne lirainak.
Agur, behartsu eta baztertuen
aterpe goxo eta atseginak.
Agur eta on eginazjarraitu
zuen zerbitzu onarte bezain bikainak".*

Barrak, Birrak eta Barreak



BaRREN

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12

Publizitatea:
w 943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-maila: barren@topaguneajalgi.com

Helbide informatikoa:

www.ihardun.com/barren

ARGITARATZAILEA	Elgoibarko Izarra
LAGUNTZAILEA	Elgoibarko Udala
KAZETARIAK	Irati Agirreazaidegi, Asier Orbea
PUBLIZARREA	Maitane Cid
MAKETATZAILEA	Bea Ansola
ADMINISTRAZIOA	Amaia Martin
GERENTZIA	Rafa Alvarez, M. Angeles Ortuoste.
KOLABORATZAILEAK	Ainhoa Andonegi, Aitor Argarate, Idola Arozena, Aitzol Arriola, Martin Dominguez, Jon Eugi, Juanito Gorostiza, Arnaitz Gorriti, Ion Gurrutxaga, KOKOE, Imanol Larrañaga, Aintzane Larrea, Ion Loiola, Ongarri Zine Kluba, Iñigo Otaño, Jon Peli Uriguen, Iban Urizar, Amaia Urzelai, Maite Vallejo, Lourdes Zubiaurre.
AZALEKO ESALDIA	Gotzon Garateren liburutik
BANAKETA ARDURADUNA	Imanol Larrañaga
INPRIMATEGIA	Gertu Koop. E.
TIRADA	4.000 ale
LEGE GORDAILUA	55-1,038/92
ISSN	1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.*



1-11111111111

*gizarte-deintza
obra social*

4 DANOBAT

GOWTI
GRUPO DANOBAT

Oporrak BARRENen

Urtero bezala, aurten ere **saso** honetan oporrak hartuko ditugu BARRENen. Hala ere, **abuztuaren 20an, San Bartolome jaietako ale berezia kaleratuko dugu, eta abuztuaren 27an, berriz, egunkari formatoko orria** jaietako argazki adierazgarriekin. Irailaren 10ean ohizko BARREN zuen etxeko buzoietan topatuko duzue. Ondo pasa oporrak eta bueltara arte!

bdrristake °

bertsolariari omenaldia

Laster Mendaroko jaiak ospatuko ditugula-eta, asmo batekin gatozkizue: datorren abenduaren 15ean, `Mendaro Txirristaka' gure bertsolaria jai zeneko 125. urteurrena heteko dela-eta, merezi duen moduan ospa dezagula.

Ezin dugu ahaztu orain dela 25 urte, 100. urtemugan alegia, ospakizun hori nola bizi izan zen Mendaron: hasi bertsolari buruzko hitzaldiekin (Antonio Zavala, Juan Mari Lekuona...), segi kantaldiekin (Lete, Antxon Valverde...) eta bertso saioekin (Lazkao Txiki. Lizaso...), `Mendaro Txirristaka' liburua argitalpenarekin bukatzeko. Horregatik, Mendaroko Talde Independentek gonbidapen hau luzatzen dio herriari eta Udalari: aurtengo abenduan mehezimenduzko omenaldia egin diezaiogun `Mendaro Txirristaka'ri, eta beste ospakizunen artean, ia agortuta dagoen bere liburna berrargitaratzen den mendarotar guztiok bere obraren berri izan dezagun.

MTI

(Mendaroko Talde Independentea)

Irakurle baten oharra

Irakurle batek deitu digu honako abisu hau argitaratzeko eskatuz: "Uztailaren 13an, asteartean, auto istripua izan nuen Trenbide kaleko aparkalekuaren parean. Goizeko 11:00etan izan zen eta anbulantzia batek nire autoa atzetik jo zuen aparkalekura sartzera nindonean. Istripua ikusi zenutenok deitu mesedez 943 74 31 74 telefonora (Ana). Aurrez esker mila".

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztek ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia.**

GALDERAK

• Sigma auzoko bizilagun batek honako galdera hau luzatu digu: "Bataldu Udalak Olasoko hilerrian egin dituzten nitxo berrien obrak dirrela-eta, agerian gelditu diren hilobiak tapatzeko asmorik? Nire etxetik hilobiak ikusten dira eta ez zait goizean jaiki eta ikusteko gauzarik egokiena dela iruditzen. Zuhaitzak landatuz edo paretan bat eginez arazoa erraz konpon daiteke."

Udaletxera deitu dugu erantzun bila eta honakoa izan da Hirigintza Siletik esan digutena: "Oraindik, eraikuntza lanen fase berri bat dago egiteko eta zuhaitzak, esertzeko bankuak eta parketxo bat eraikitzeke asmoa daukagu".

KEXAK

• Emakume batek deitu digu honako kexa hau azaltzeko: "Santa Ana kaleko rotondan zegoen ispilua apurtuta dago asfaltitik, hain zuzen, Gabonzahar feria ondorengo goizetik, oroimenak huts egiten ez badit. Dagoeneko, hainbat aldiz joan naiz Udaletxera konpon dezatela eskatzeko, baina ez didate kasurik egin. Ispiluak leku horretako autoen zirkulazioa asko hobetzen laguncluko lukela uste dut."

• Leku Ederreko etxebizitzetan garajea daukan herritar batek ondorengo kexa helarazi digu: "Leku Ederren daukat garajea eta Musikeskola berriaren eraikuntza lanak direla-eta, zailtasun franko pasa behar izaten ditut garajera sartzeko, ohol batzuek bidea oztopatzen baitidate. Ezkertiarrek ez dute arazorik garajeko atea zabalitzeko, baina eskuin eskuia erabiltzen dugunok bai. Leku Eder parkeko sarbidea jende askok erabiltzen du, 5 pisuko garajea baita. Beraz, oholak jarri dituztenel, hurrengoan arreta gehiago jartzeko eskatu nahi nieke."



TXALOAK

• Gazte batek deitu digu Ikastolako Irratia txalotzeko, "benetan musika atsegina ipintzen dute eta gainontzeko irratietan entzuten ez den musika entzuteko aukera izaten dugu elgoibartarrok, eskal musika batez ere. Oraindik entzuteko aukerarik izan ez dutenek, FMko 105'5ean aurkituko dute musika atsegina".



FADEK

Abuztuaren 7ra arte zabalik

Errosario, 35 behea • Tel: 943 74 26 92


LANDA ERRETEGIA

BEREZITASUNAK

Legatza champagne erara
41 Ganba eta intxaurre pudding-a

Paial mdatu !!

Garagarza, 32 • MENDARO 'W 943 75 60 28



T. URTEURRENA


1998ko uztailearen 16an, 73 urte zituela hil zen

JESUS BARRENETXEA ARAKISTAINen oroimenez

URTEURRENEKO MEZA izango da Parrokian

larunbatean, hilak 17, arratsaldeko 19:00etan.

Joaten zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.




MEZA

1999ko uztailearen 7an, 73 urterekin Hannoverren (Alemania) hil zen

ILIAN JOSE BELOKI AIZPITARTEren sendiak,

larunbatean, hilaren 17an, Parrokian arratsaldeko 19:00etan

egingo du bere oroimenezko meza . Joaten zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.



Abuztuan lanean

Lan egiteko hilabete aproposena

Jeronimo Angulo elgoibartarrak 42 urte ditu eta Basko Rent auto alogera enpresan egiten du lan. Bere lana dela-eta, abuztuan ere lan egiten du. Are gehiago, abuztua funtsezko hilabetea da bere negozioarako, "Abuztu hasieran eta errialdean batez ere lanez gainezka egoten gara, auto alogerak 15 egunekoak izaten baitira. Jendeak, Euskal Herriik kanpora bidaiak egiteko edo oporrak aprobetxatzeko, altzariak lekuz aldatu edo antzerako gauzetarako alokatzen ditu gure autoak.

Jeronimoren iritziz, lanean egotea ez da pentsa litekeen bezain gogorra, "abuztua lanean pasako duzula mentalizatzea da kontua. Zerbitzu turistikoaren sektorean lan egiten dut eta hilabete hauetan inoiz baino gogorrago saiatu behar gara lanean. Izan ere, batzuek ongi pasa dezaten beste batzuek lan egin behar dugu.

Dena dela, abantailak ere baditu, herria eta inguruak askoz lasaiago egoten baitira eta erlajatuago sentitzen naiz. La-

nean ari garenontzat urteko beste hilabeteekin konparatuz gero, giro arraroa edo ezberdina izaten da abuztuan. Beste hilabete guztiek elkarren antza izaten dute, abuztua, aldiz, zeharo ezberdina da". Abuztuan lana egin beharrak desabantailak ere badituela esan digu, "arazoren bat sortuz gero, zerbitzurik gehienek ez dute funtzio-

**"Zerbi zu turistikoaren sektorean lan egiten dugu-
no ucaiko hilabete hauetan inoiz baino gogorrago saiatu behar garalanean".**

natzen eta zailagoa izaten da behar dituzun gauzak topatzea, askok jai hartzen baitute. Askotan, bazkaltzeko edo kafe bat hartzeko leku bat bilatzeko ere lanak izaten dira". Abuztua aprobetxatzeko modurik egokiena orduak banatzea eta antolatzeko dela esan digu.

Abuztua oporrak hartzen ditugun hilabetea da gehietzat, eguzkiaz eta lasaitasunaz gozatzeko 30 egun izaten dira. Hala ere, denek ez dute zorte hori izaten, eta hainbat arrazoi medio, abuztua lanean pasatzen dute. Guk abuztuan lan egin behar duten hiru elgoibartarrekin berba egin dugu nola moldatzen diren jakiteko, eta abuztuan lan egiteak dituen abantailen eta desabantailen berrijakin nahi izan dugu. Jeronimo Angulok auto alogera enpresa bat du eta abuztua da lan gehien duen hilabetea. Celia Pelaz gaztearentzat urteroko ohitura da abuztuan lan egitea. Diru piska bat ateratzeko, edo bidaiatzeko eta jende berria ezagutzeko egiten du lan bere adineko jende gehiena oporretan dagoen bitartean. Azkenik, Abel Iriondok nahiago du abuztuan lan egin eta urteko beste garai batean oporrak hartzea. Abuztuan lan egitera ohitu da eta ez zaio sakrifizio handia iruditzen; aitzitik, gustuko du.



Bere lana dela-eta, Jeronimo Angulo abuztuan lan gehiago egitera behartuta dago.



Celia Pelazek, abuztuan lan eginez, jende eta leku berriak ezagutzeko aukera aprobetxatzen du.

Gazteak ere lanean

Celia Pelaz, 21 urteko gaztearen kasua ez da oso ohizkoa izaten bere adineko jendearen artean. Urtean zehar ikasketak aurrera ateratzen saiatzen da, eta duela 4 urte hasi zen abuztuan lan egiten. 17 urte zituenean Saloura joan zen kamarero lanak egitera. Diru piska bat irabazten zuen bitartean leku eta jende berria ezagutzea zen bere asmoa. Azken hiru urteotan, berriz, Bilboko Marco Polo bidaia agentziaren bitartez, bidaia antolatuetan hartzen du parte gidari lanak eginez. "Nire osaba batzuek agentzia honekin bidaia bat egin zuten, eta gidariak titulu berezirik

"Abuztuan lan ecitea aberasgarria izan ca niretzat eta ran muncuak nola fun_ zionatzen duen ikaste<o au<era aparta".

ez zutela behar aipatu zidatenean, probatzea erabaki nuen". CeGak kontaktu digunez, lehen bi urteetan Italiara egin zituen bidaiak eta aurten Holandara joateko asmoa du. "Autobusean egiten dira bidaiak eta 3 edo 4 tokitan akanpadak egiten ditugu. Batez beste 30 bidaiari inguru joaten dira, eta nire eginbeharra pertsona hauen arduraduna izatea da. Zenbait hilabete lehenago hasten gara bidaiak prestatzen, erretserbak egiten eta tokian tokiko mazioa biltzen. Gainera, autobuseko bidaia hauetan esperientzia piska bat hartu ondoren, agentzia berarekin abioian egiten diren bidaia luzeagoetako gidaria iza-

teko eskubidea irabazten duzu, Datorren urtean Birmania, India edo Indonesiarcr joatea da nire asmoa". Gidari lanak egitearren ez du dirurik jasotzen, eta musutruk bidaiatzen du.

Abuztuan lan egitea ez dela gogorra aipatu digu, "orain arteko Fanak herrian bertan aurkitu izan banitu, agian astunagoa izango litzateke. Kanpoan lan eginez, lanean nabilen bitartean leku eta jende berri asko ezagutzen ditut. Nire esperientzian oinarrituz esan dezaket abuztuan lan egitea aberasgarria izan dela. Batzuei gurasoek ematen diete dirua eta ez dute lan egin beharrik, baina hala eta guztiz, lan munduak nola funtzionatzen duen ikasteko aukera aparta dela iruditzen zait". Celiaren ustez, nagusien menpean lan egiteko, jendearekin tratua izateko eta erresponsabilitatea zer den ikasteko baliagarria izaten da. Etxetik urrun une txarrak ere pasatzen dira, baina zerbait ikasteko une txorrek eta onak pasatu beharra dago".


Lan egiteko hilabete aproposa

bel Iriondok, 33 urteko elgoibartarrctk, 10 urte daramatza Etxepe antegian. Urte hauetan guztietan abuztuan lan egitea tokatu zaio, eta hala ere, jende gehienak oporrak hartzen dituen hilabetean lan egitea ez zaio sekula eragozpena iruditu. "Abuztuan, lan itxiari ez diot beldurrikan, gero urrian hartzen ditzut oporrak eta ez da inolako arazorik eoten". Abuztuan lana modu lasaiagoan egin al daitekeen galdetu diogunean, lanaren arabera izaten dela erantzun digu, "Etxepe enpresa auxilia-

rra da, beste enpresa handixautentzako piezak itxen ditzugu, eta bialtzen diguten lan kopuruan arabera lan gehixao edo giixiao eukitzen dou. Askotan enpresa handixek lana atzerauta eukitzen dabe eta guri bialtzen dizkigute bukatzeko. Hau dala eta, abuztuan ezin izaten dou rtxr eta beti gerau bihor da bateronbat lanian. Enprexiak langillion artian erabakitzen lagatzen digu. Gure artian berba itxen dou zein gerauko dan abuztuan jakitzeko". Abelek ela bere emazteak haur bat izan berri dute eta une honetan inoiz baino gutxiago axola zaio abuztuan lanean jardutea. "Haurra euki berri dot eta momentuz ez jata abuztuan lana itxra batere inporta, egixa esan, ezin naiz urrutira joan eta.gainera, geldi-

"Geic itzen jatan denbora libria onco antolau ezkeru, gauza asko in lelkez".

tzen jatan denbora libria ondo antolau ezkeru, gauza asko in leikez. Eguerdixan irretzen naiz lanetikan eta Lekeitxion beraneatzeko astixa ematen dia. Oindiokan oporrik ez badaukat ere, oporretan egongo banintz moduan sentitzen naiz. Norberan burua tokatzen diazen egoera ezberdinetara egokitzia da inportantiena".



Abel Iriondok nahiago ditu abuztuko oporrik beste garai batean hartzea ettt abuztuan lanean jardutea.

Ba al daukaz fudako oporrak ondo pasatzeko errezetarik?



MARIA LUISA ARTETXE

48 urte, etxeakoandrea

Osasun ona euki ezkeru, urrutira jun fr,abe bertan ondo pasau leikela uste dot. Mendixan edo hondartzan, egaldi ona itxen badau oporrak edozein tokitxan dia onak.



ALFREDO MONREAL

67 urte, jubilatua

Oporretan Elgoibarren geldituko naiz. Urrutira joan eta beroa aguantatu beharrean, Euskal Herrian badira oporretan bisitatzeko toki politak.



CRISTINO GALA

42 urte, igeltseroa

Aurten oporretan hemen geratuko naiz, istripua izan nuen eta ezin dut gidatu. Errekuperazioa oso luzea da, beraz, oporretzako errezeta bakarra deskantsua izango da.



JUAN IPARRAGIRRE

70 urte, jubilatua

Bai, badakat errezeta bat, nerretzat oso aproposa gainera. Dirua eta andria hartuta Benidormera jutia, plaiara. Nik aurtengo oporretan hori itxeko esperantzia dakat.



EVA ACUÑA

16 urte, ikaslea

Errezetarik egokixena giro onian sartzia eta antolatuta dauden gauzak ez estropeatzia da. Hemen gelditxuko naiz, eta gustuko gauzak itxen ahal doten onduen pasauko dot.



YOLANDA MUNIN

15 urte, ikaslea

Denbora ahalik eta onduen aprobetxatzia, plaian eguzki piska bat hartzen edo mendixan ibiltzen adibidez. Oporretan daukawn denbora lihria alperrik ez galtzia da kontua.

1111
KAFETEGIA
943 74 42 65

IIGURTZIINE
Ile@paindegia
Abuztuan irekita astelehen,
astearte eta asteazken arratsaldeetan ezik
Sonto Ana, 18 + Tel; 943 74 18 64

IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
-;• ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN, AZTERKETARIK GABEI
gaiodi eyyd ~ . 7 apleta temdeo4 16 Inteleleft.
Zatoz informazio eske
ARRAÑAGA
A U T O E S K O L A
Tel: 943 74 10 11



Osasunean adituak

GAIA:

Intseiduen ziztadaiz

Uda eguraldi onarekin eta aisialdiarekin lotzen den garaia da. Baina ezin ahaztu daiteke urtaro honetan euliak eta eltxoak ere gehitu egiten direla, eta horrekin batera baita ziztadak ere. Intsektuek norbait pikatzen dutenean azala gorritzen da eta baita handitu ere, eta granotxoak agertzen dira gehienetan. Pikatu eta berehala hazka egiteko gogoia izaten dugu, baina hori sahiestea da onena, bestela gehiago handitzen baita.

Pikadak ez dira larriak izaten, baina erleen, liztorren eta ezpaten ziztadak mingarriak dira. Erleek pikatzen dutenean komenigarria da eztena ateratzea eta ziztatutako tokia berehala desinfektatzea. Pikada bat ez da alarma pizteko modukoa, baina ez dira ahaztu behar, inolako kalterik sortuko ez balute hezala. Batez ere, alergia daukatenen kasuan kontu handiz ibiltzea gomendatzen dute. Hori dela-eta, hona hemen zenbait adloiku intsektuen ziztadak sahiesteko:

v' Leku hezeak atsegin dituzte intsektuek. Beraz, komenigarria da toki lehorretan egotea. Gainera, gogorazi behar dugu goizeko lehen orduetan eta iluntze partean pikatzen dutela gehien intsektuek.

o/ Leihoetan eltxoak ez sartzeko sareak jartzea aspaldiko kontua da, baina egun ere funtzionatzen du.

✓ Logelak desinfektatzea, etxeko animaliek parasitoak dauzkaten kontrolatzea eta gorputza oihal finez estaltzea dira beste irtenbide batzuk.

✓ Intsektuak uxatzeko produktuak dira pikadak sahiesteko modurik onena. Haurren, alergikoen eta diabetikoen kasuan batez ere.

Komenigarria da oporretan kanpora joaten direnek botikina ondo prestatuta izatea. Bertan pintzak, desinfektantea, pikadak sendatzeko pomada, amoniakoa, gasak eta bendak eramatea, baita goma bat ere, ziztada larria izanez gero, pozoia zabaldu ez dadin. Hauez gain, kadak sahiesteko lozioak eta eguzkitarako kremak ere ez dira ahaztu behar.

MASAJISTAK

Victoria Iraegi

■ Migel Urruzuno, 31 • Tel: **943 74 07 70**

..... Egunero: 10:30-13:00 / 15:00-19:00

MEDIKUNTZA ALTERNATIBOA

Kemen Belardenda (Medikuntza naturala, E de Bach, masaia, makrobiotika, yoga)

..... San Bartolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**

..... Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Surya Belardenda (Yoga, reiki eta masaia ikastaro eta tratamenduak)

..... San Frantzisko, 23 • Tel: **943 74 25 34**

..... Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

OPTIKAK

Ikus (Optiko-optometrista)

..... San Bartolome, 10 • Tel: **943 74 37 34**

..... Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri (optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

..... San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**

..... Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

..... San Bartolome, 9 • Tel: **943 74 35 62**

..... Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

PODOLOGOAK

Ibiltzen

..... Ubitarte, 11 • Tel: **943 74 36 56**

..... Egunero: 10:00-13:30 / 15:00-19:30

Iñaki Rivero

..... San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**

..... Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

PSIKOLOGOAK

Nare psikologoak (Helduak, haurrak eta bikoteak)

..... Isasi 17, 1-B Eibar • Tel: **943 20 05 95**

91 da honetan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra]

Osasunari buruzko kezka bat argitu nahi baduzu, deitu **BARRE**neko 943 74 41 12ra



tes Pluel

ochistlanr mariatxiel koltzertua izango da bihar,, hilak 17. Herriko ilotzokian

Talde mexikarrak arratsaldean kalejira egingo du Elgoibarko kaleetan

Los Nrez de Nochistlan mariatxien taldeko partaideak Elgoibarren arituko dira, bihar, larunbata, hilak 17, Herriko Antzokian gaueko 22:30etik aurrera. 1943an, Nochistlanen, Zacatecas eskualdean (Mexiko) sortu zuten taldea Pedro Arcadiok eta Crispin eta Agustin Nrezek. Hasieran herrietako jaietan jotzen zuten, baina ondoren Palenqueetan aritzeko erabakia hartu zuten. Mexikar Errepublikako jai bereziak dira Palenqueak eta be-rangetan goi mailako ikuskizunekin gozatzeko aukera izan ohi da.

Mariatxi talde hau goi mailako artistekin ibilia da, eta dagoeneko hainbat disko kaleratu dituzte: *Los Perez en vivo*,



12 lagunek osatzen dute "Los Perez de Nochistlan" mariatxi talde mexikarra.

Canto a mi tierra eta *Canciones de ayer y hoy* dira horietako batzuk.

Oilatiko Udala eta Mexikoko Zacatecas hiria anaituta daude, eta hori dela-eta, hainbat ekintza antolatu dituzte, horien artean *Los Perez de Nochistlan* tal-

dearen bira. Aurten Euskal Herriko 13 herritan eskainiko dituzte kontzertuak. Eibar eta Oñati bisitatu dituzte jadanik eta bihar, uztailak 17, Elgoibarren izango dira. Arratsaldean "callejoneada" deitzen dioten kalejira modukoa egingo dute Elgoibarko kaleetan. Mexikon sarritan egiten dituzte horrelako kalejirak; izan ere, Zacatecasen mariatxi asko daude. Kalejiraren ostean, gaueko 22:30ean kontzertua eskainiko dute Herriko Antzokian. Inguruko herrietako emanaldietan mariatxi mexikarren doinuak

entzun ez dituztenek horretarako aukera ezinhobeia izango dute Elgoibarren. Sarreraren zenbatekoa 1.000 pezetakoa izango dela gogorarazi nahi dute Udaleko Kultura Saileko arduradunek.

L
i
K
i
d
a
z
i
o
a



ifIrmoo2m2z,

IJ1>Cm **kirolak**

1
//
r
CD
l
a
k


Denda ixten dela-eta,
uclako arropetan eta zapatiletan'
% 30, %40 eta %50qko

EHERAPENA

larunbatetik aurrera

kirolak

kirolak





Plaza Handia jendez gainezka izan zen San Fermin Txiki Eguna ospatzeko

Irufilean ezezik, Elgoibarren ere izan da aste honetan San Fermin jaiez gozatzeko aukera. Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaiak Begirale Taldeak antolatuta, 'San Fermin Txiki Eguna' ospatu zuten joan zen asteartean, hilaren 13an. Zuriz jantzita eta lepoan zapi gorriak zituztela, hurrek eta gurasoek Plaza Handia bete zuten. San Ferminetan ohitura den bezala, pregoia irakurri eta txupinazioa bota ostean ekin zioten jaiari. Ondoren, santuari abestu zioten eta entzierroan korrika aritu eta gero, Arnoren zezentxoak eta poniak tentatzen saiatu ziren ausartenak, besteek, berriz, ikuskizunarekin gozatu zuten. Eguraldiak gehiegi lagundu ez bazuen ere, hurrek ez zioten euriari erreparatu eta ederki pasatu zuten poniekin eta zezentxoekin. Hala ere, euria zela-eta, zezentxoak irristatu egiten ziren eta azkar erretiratu behar izan zituzten.

• Sargoateko erromeria hilaren 25ean

Elgoibarko Izarrak, Morkaiko Mendizale Elkarteak, Sallobenteko Jai Batzordeak, DEBEMENek eta Elgoibarko Udalak Sargoateko erromeria antolatu dute hilaren 25erako, domeka. Goizeko 9:00etan Madalatik Sargoatera oinezko ibilaldia egingo da. Ondoren, goizeko 11:30ean, meza izango da, eta segidan, salda eta txorizoa banatuko dira bertarutako guztien artean. Eguerdiko 12:30ean, Meabe, Ziarda eta Narbaiza bertsolarien jardunari emango zaio hasiera, eta jarraian, trikitalariek alaitutako erromeria izango da. Eguerdiko 14:00ak aldera amaituko da jaiak.

• Albitxuriko zelaia lur industrial izendatu dute

Udalaren bi urte Iuzeko gestioen ostean, azkenean Albitxuriko zelaia lur industrial izendatu dute. Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko hainbat sail batzen dituen COPU erakundeak hartu zuen erabakia uztailearen 7an. Beraz, Albitxuriko poligono industrial bihurtuko dute eta horretarako lanak urte bukaerarako amaituta egon daitezke. Uztailearen 19an, astelehenean, Iehen harria jarriko dute Albitxurin eta ondoren hasiko dituzte urbanizazio lanak. Alkatearen esanetan, "gure heiburua Albitxurira doazen enpresek zerbitzu guztiak izatea da, hau da, ura, gasa, telefonoa... Hori guztia prezio duin batean, 22.000ptax metro karratuko hain zuzen".

31L3F113 EXPQESS

ORAINDIK BADAUKAZI!

OPORRAK PRESTATZEKO AUKERA!

Anitnatti eta etor zalter! Hemen gaude 9:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 20:00etara.

HOTEL DON JUAN 3*, 5.500 pta. eguneko, PO LLORETen
HOTEL PORT DENIA 3*, 9.250 pta. eguneko, PO DENIAN
HOTEL KRISTAL 3*, 5.225 pta. eguneko, PO TORREMOLINOSen
HOTEL CONDAL 3*, 6.125 pta. eguneko, PO BENIDORMen

MADRILDIK IRTENDA

KUBA (7 gau) Turista hotelean 117.950 pta.tik aurrera
CANCUN (7 gau) Turista hotelean 102.950 pta.tik aurrera
PUERTO PLATA (7 gau) Turista hotelean 104.350 pta.tik aurrera

MADRILDIK IRTENDA GREZIARA

"ATENAS" 7 gau hotelean OG: 59.900 pta.tik aurrera
"ATENAS eta MIKONOS" (7 gau OG) 88.900 pta.tik aurrera
"ATENAS eta PELOPONESO" (7 gau OG + PE) 91.900 pta.tik
"ATENAS eta KRUZEROA" (7 gau OG + PO) 116.000 pta.tik

BILECTIK IRTENDA

MALLORCAN retaka hotela pentsio erdian 7 gau: 77.400 pta.tik
PUERTO DE IA CRUZEn 7 gau apartamentuetan: 54.900 pta.tik
LANZAROTEn 7 gau apartamentuekm: 91.400 pta.tik aurrera

MADRILDIK eta BARTZELONATIK IRTENDAMAROKORA

"Marrakech" 3*etako hotelean 7 gau PE, 54.000 pta.tik aurrera
"Agadir eta Marrakech" 4*etako hotelean 7 gau PE, 66.500 pta.tik
"Atlasko erreinua" 3*etako hotelean 7 gau PE 69.900 pta.tik

CABO VERDE

PLAYAS DE SAL (8 egun OG) 79.900 pta.tik aurrera
ISLAS SAL eta SANTIAGO (8 egun OG) 139.900 pta.tik

ZIRKUITUAK

PARIS-FUTUROSCOPE 5 egun, 39.900 pta.tik aurrera
PARIS-NORMANDIA-BREFANA eta FUTUROSCOPE 7 egun, 55.900 pta.tik

PO: Pentsio osoan (Pensian Completa) • PE: Pentsio Erdian (Media Pensian) • OG: Ohea eta Gosaria (Alojamiento + Desayuno)

SARGOATEKO ERROMERIA

uztailak 25, domeka

EGITASMOA

9:00

Mendi irteera

Madalatik Sargoatera oinez

11:30

Meza

12:00

Salda eta txorizoa

12:30

Bertsolariak;

Meabe, Ziarda eta Narbaiza,

eta Trikitilariak

14:00

Erromeriaren

amaiera

. s

j'

**4C'dk

* r f#'



zenik eman nahi ez duen mendarotar batek ekarri digu hilabete honetako

argazkia. Esan digutenez, Azpilgoetako Goiko Plazan ateratakoa da, 1959. urtean. Lehen, ohitura izaten zen Azpilgoetako Andra Mari jaietan zezenketa egitea. Argazkian ikus daitekeenez, sekulako jendetza biltzen zen Andra Mari jaietako zezenketa ikusteko. Hala ere, gutxi izaten ziren zezenaren aurrean toreatzera ausartzen zirenak, erretratuan ikus dezakegunez, gehienak egurrezko hesiaren atzean baitaude.

Maria Angeles

K
O
N
F
E
K
Z
I
O
A
K

M
E
R
T
Z
E
R
I
A

Azpilikueta, 24. MENDARO Tel. 943 75 50 86

P
U
B

ARRATS

Zelaikoa plaza, 2. MENDARO. Tel: 943 75 50 58

SANTANA

199urteko Santana

jaiak gainean dira. Hasi, uztailearen 23an hasiko dira eta hilaren 26an amaituko. Aurreko urteetan gazteei zuzendutako eguna antolatu izan duten arren, aurtengo Santana jaiak ez dute gazleen egunik izango.

Hala ere, lau egun hauetan ez da ez, aspertzeko motiborik izango. Ohi bezala, egunik 'fuerteenak' Santixao Eguna

(uztailak 25) eta jaiari amaiera emango dien Santana Eguna

tuztailak 26) izango dira.

Jai egun hauetatik gain, zahartzaroari egingo zaion eguna ere uztailearen izango da. Izan ere, hilaren 18an izango dute egun hadia herriko edadetuek

Aurtengo Santana jaietan denetik izango dugu: zezenak, erromeriak, bertsolariak, makailo lehiaketa etab. Jai egitarau mardula antolatu dute, baina guk, programako ekitaldien artekin entreska bat egin eta, kanpotik etorriko diren lau talde aukeratu ditugu. Orri honetan aurkezten dizkizuegu Arjentina aldetik datozen dantzariak, Georgiako dantzariak, 'La musika talde kubatarra, eta baita Alaitz eta Mainer bikote ezaguna ere.

Argentinako Beti-Alai dantza taldea

Argentinako dantzari talde honek zahartzaroari omenaldia egingo zaion egunean eskainiko du beraien ikuskizuna Mendaron. Ekitaldia meza ostean izango da Goñati pilotalekuan. Aipatu behar da Mar de Platako dantza taldeko hiru partaide Mendaroko Lizantzu baserrikoen senideak direla. Quimei, Maria del Carmen eta Asier Arriola beraien arbasoen herrian ikuskizun polita eskaintzeko prest izango dira.



Rokua konpainia

Georgiako (Ukrania) konpainia hau 40 dantzarik osatzen dute eta 1937an sortu zen. Bi ataleko programa eskainiko du taldeak. Programaren barruan Georgiako dantzarik onenak aurkeztuko dituzte, eta beraien arroparen elegantzia ere dantza hauetan islatuko dute. Rokua konpainia txapelketa internazionalan sarritan izan da garai- eta hainbat jaialditan pare hartu du, Polonian, Belgikan, Italian, Indian, Turkian, Grezian eta Errumanian, besteak beste. Emanaldia uztailearen 23an izango da.

La VisiOn Orkestra

Talde kubar hau 1981ean sortu zen eta 11 partaide ditu. 18 urteotan hainbat jaialditan hartu dute parte eta baita sariak jaso ere. La Visibiek 9 bira nazional eta 5 internazional egin ditu. Nazioarteko bi bira Mexicon egin dituzte eta gainontzeko hiruak Espainian, azken hiru urteotan hain zuzen ere. Hirugarren biran beraien lehen CDa grabatu zuten. Lal4sOn taldearen musika Txilera eta Kanadara ere zabaldu da. Uztailearen 24an izango dugu beraien musika entzuteko aukera.

Alaitz eta Mainer

Bi neska gazte hauek gaur egun Euskal Herrian modan dagoen talde bateko kideak dira. Alaitzek soina jotzen du eta Mainerrek, beniz, panderoa. Taldeak azken diskoa aurkezteko egin duen biran, Mendaron hain ezaguna den Arta biolinjoleak hartu du parte. Alaitz eta Mainerren kontzertua uztailearen 26an izango da gaueko 22:30etik aurrera. Bi neska hauen trikiti doinuek emango diete amaiera Mendaroko Santana jaiari.



GOXO 0011

GOZODENDA

Weedoulcad, 5 913 75 51 90 - 714, tievz4

ARBOLETA Jatekxoa


edo 2. era jaiak!

Jaietan bazkaidu edo afaltzeko leku aproposa

111-111 1151.11 • FIENDARO • Tel 943 75 60 45

joiffilk 99

ZER IRUDITU ZAIZU AURTENGO SANTANA JAIETAKO EGITARAUA?



David Seijas

16 urte

Nire ustez, Mendaroko jaiak gero eta eskasagoak dira. Gazteekin gutxi pentsatzen dute eta orkesta **garesti** bat ekarri beharrean, hainbeste kostatzen ez duen gazteentzako talde bat ekar zezaketen. Zezenak sarriago jartzea ere eskatuko nuke.



Pedro Martin

45 urte

Mendaroko jaiak ez daude gaizki, baina zezenak egun batean bakarrik jartzea gutxi dela pentsatzen dut. Beraz, jaiak hobek izateko zezenak egun gehiagotan ipiniko nituzke.



Jose Mari Zabala

60 urte

Mendaroko jaiak ondo daude, baina aurtun, programan ikusi dudanez, zezenak egun bakarrean baino ez daude; nire gusturako egunero egon beharko lirakeke. Bestela, ambiente ona egongo dela uste dut.

EGITARAUA

Uztailak 10, larunbata

17:00 Mendaroko XIV. Txirrindulari Saria.

Uztailak 17, larunbata

16:30 Plater tiraketa Santa Kruzko zelaian.

Uztailak 18, igandea

11:00 Kalejira txistulariekin.

12:00 Meza frontoian. **Ondoren:** Dantza jaialdia 'Denak Bat' Euskal Etxeko *Beti-Alai* taldearekin (Mar de Plata, Argentina).

14:00 Bazkaria Aizpe elkartearen.

Uztailak 23, ostirala

19:00 Salbea eta Santa Anari zapia jartzea Azpilgoetako elizan, Eliz abesbatzarekin.

Ondoren, kalejira erraldoi eta buruhandiekin.

23:00 Nazioarteko folklore jaialdia Goñati pilotalekuan. *Georgia* (Ukrania) *Haritz Dantzart Taldea* (Elgoibar)

Ondoren: Diskoteka goizaldera arte

Uztailak 24, larunbata

10:30 Kalejira.

12:00 Umeen tanborrada Bizi-Poza txarangarekin.

15:00 Umeen jolas parkea.

18:30 **Sokainuturra** Garagartzan.

21:30 Afari herrikoia.

00:00 Dantzaldia *La Viskin* orkestarekin.

01:00 Play Back lehiaketa. **Ondoren** dantzaldia *La Viskinekin*.

04:00 Diskoteka.

07:00 Txokolatada Luzaide jatetxean.

Uztailak 25, igandea, Santixao eguna

09:00 Kalejira txistulariekin.

11:30 Meza nagusia Garagartzako elizan. **Ondoren,** Dantza Eskolako emanaldia.

12:00 Makailu lehiaketa eta txakolin dastaketa frontoian.

13:00 **ean** sari banaketa.

18:00 Pilota partiduak.

22:45 Su Artifizialak *Zamorano Caballer-en* eskutik.

23:00 Nagusien tanborrada Debako Bandarekin.

00:30 Dantzaldia *Ern* taldearekin.

Uztailak 26, astelehena, Santana eguna

10:30 Prozesioa Santanara Azpilgoetako elizatik.

11:00 Meza Santa Anako ermitan. **Ondoren,** erromeria bertsulariekin eta trikitalariekin.

18:00 Herri kirolak Goñati Pilotalekuan. Aizkolariak: Olasagasti, Larretxea, Peñagarikano eta Mindegia.

Harrijasotzallea: Goenatxo II.

Ondoren, Alaitz eta Maidet Ten kontzertua afal ordura arte.

22:30 *Alaitz eta Maidet* trikitilarien kontzertua.

Mendaroko TAXIA

Kontxi Urain

Trh **907 57 57 28**



INDUSTRIAS

BI, S.A.

MAKINAK NEURRIRA

Manipulazioa eta Montaia - Makina Berezia Donos6a-Bilbo Errep, 53. km.
Bruidorak - Kontrol dimentsionala 20870 MENDARO

Tel: 943 75 50 00

Jai alaiak igaro itzazue!

Faxa: 943 75 51 62

❖ `Santana Saria' Pilota Txapelketa aurrera doa

Pilota Txapelketa aurrera doan heinean, kalitatea eta emozioa ere gora doaz. Izugarriko jendetza biltzen ari da frontoian, eta giroa, beraz, ezinhobea da. Hona hemen joan den asteburuan jokaturako partiduen emaitzak:

Infantilak

Agirrebeña 18-Urain 6
Arizmendi 18-Azpiazu 1

Afizionatuak

Aurtenetxe 5-Ezkurra 22
Aranzeta 2-Egimendia 22
Laskurain 22-Antxia I 5
Gaur eta bihar (hilak 16 eta 17) gauan ere partiduak jokaturako dira 21:30etik aurrera.

41' Azken zine enianaldia hilaren 31n izango da

Dagoeneko udako ekintza kulturalak amaitzen ari dira, eta antolatzaileek esan digutenez, hasierako helburua betetzen ari da. Jende ugari hartu du parte ekitaldietan eta horrek kaleko giroa animatu du. Plazetan egin diren dantzaldietan mendarotarrek nahi beste dantzatu dute Agautz, Zabale eta Gardoki trikitilariekin. Bestalde, jendeak barre asko egin zuen *Full Monty* pelikula ikusten. Laster Santana jaien txanda izango da eta zine emanaldi bakarra gelditzen da uztaileko. "La llave m'agica" filmea uztailearen 31n, larunbatean, emango dute gaueko 22:30ean.

• Santixao eguneko Makailao Lehiaketak hainbat aldaketa izango ditu

Santixao Egunean egingo den Makailo Lehiaketak aldaketa batzuk izango ditu aurten. Sariak handiagoak izango dira. Irabazleek 15.000 pezeta jasoko dituzte, bigarrenek, berriz, 10.000 pezeta. Era berean, saritutako nakailu kazuelak ikusleen artean subastatuko dira.

Udal Korporazio berria eta Batzorde Informatiboak eratu dituzte Mendaron

Uztailearen 3an, zinegotzi berrien kargu-hartzea eta alkaterearen hautaketa egin zituzten Mendaron. Boto kontaketa ostean, honako emaitzak atera ziren: EAJ-PNVko Jose Domingo Zulaikak 6 boto eskuratu zituen; EHko Arantza Egañak 2 boto eta EAko Gregorio Vivesek, berriz, boto bakarra. Beraz, Jose Domingo Zulaika izango da Mendaroko alkatea datozen 4 urteetan. Bestalde, Batzorde informatiboak banatzeko, alkatetean eskaintza hauek egin ditu:

■ Hirigintza eta ingurugiroa:

Anton Zubiaurre (EAJ-PNV)

• Kultura, kirola, hezkuntza, jaiak eta gazteria:

Txomin Aranberri (EAJ-PNV)

• Ogasuna eta ekonomia:

Jose Luis Zulaika

■ Euskara:

Arantza Egaña (E11)

• Mankomunitatea eta gobernazioa:

Gregorio Vives (EA)

|||| Baserrietako gaiak:

Txomin Zulaika (EAJ-PNV)

• Gizarte zerbitzuak, osasuna eta kontsumoa: Jose Luis Arrillaga (EAJ-PNV)



Ibai Albak irabazi du Mendaroko XIV. Txirrindulari Saria

143 txirrindularik hartu zuten parte joan den larunbateko XIV. Txirrindulari Sarian. 89 km.ko ibilbidea egin zuten partehartzailerak eta, helmugara 48 besterik ez ziren iritsi. Irabazlea Tradipa taldeko Ibai Alba izan zen eta guztira 2h29'37" behar izan zituen proba bukatzeko. Mendarotarrei dagokienez, Ander Zulaika laugarren iritsi zen helmugara, irabaz-

learengandik segundo bakarrera eta Iñigo Lazkano, berriz, bederatzigarren, 15 segundora.



Ibon Arregi, 22 urteko gaztea, Arte Ederretan lizentziatu berria da. Diseinu grafikoa eta eskultura landu ditu batez ere, baina marraztea ere gustuko du. San Bartolome jaietako kartel lehiaketa berak irabazi du akuarelaz egindako marrazki batekin, eta hori aitzakia hartuta, Ibonekin berhetan izan gara bere lanari buruz. Karrera bukatu duenez, aurrerantzean zer asmo dituen ere galdetu diogu.

"Paretak pintatzia, papelian edo lientzuan margotzia baino gehixo gustatzen jata"

- San Bartolome jaietako kartel lehiaketa irabazi duzu. Zer islatu nahi zenuen 'Icaroren Ikara' kartelarekin?

- Komiki estiloko marrazki bat da. Lehenengo mtring-ez in naban eta gero akuarelaz margotu. Elgoibarren santua baciakagu, baina bere irudixa ez da hain ezaguna. Bilbon Marijaia edo Gasteizen Zeledon dauden bezela, gizaki itxurako pertsonaje bat landu nahixan, Icaron eskultura eskusa moduan hartu dot. Figurak barreguria sortzen dia, maixu bat gogorarazten dialako. Belgikan egon nintzanian Icaron eskulturian argazkiak bialdu zizkiaten eta maixu horrek ikusi zitxuanian, barre itxen zaban, esanez, eskultura horrek ez zabala sekula hegan ingo eta erre kara jausiko zala. Honetan inspirauta in dot lana.

- Lehen aldiz aurkeztu al duzu lan bat kartel lehiaketara?

Bai. Azken aldixan nahiko alper nabilen eta beste leku batzuetara kartelak aurkezteko au-

keria euki badot ere, ez dot ezer ere in. Azkenian, apustu bat zala tarteko, azkenengo astian prestatu dot lana. Hain denbora gutxixan lan bat in eta irabaztiak animuak eman dizkit kartelak itxen jarraitzeko.

- Diseinu grafikoa landu arren, oraingoan akuarelaren aldeko apustua egin duzu. Zer dela-eta?

- Jendiak diseino grafikuan indako lan txukunak aurkezteko maila daka. Kataloguetarako ohizko formatuak agortuta zaudela iruditxu jatan, beraz, beste era bateko lan bat itxia pentsau naban eta suertia euki dot. Jeneralian kartel gehixenak ildo berefik juten dia eta jendiak tonoserixuan itxeko ohitxuria daka. Ni zeozer diferentia itxen saiatu naiz.

- Icaro hartu duzu aitzakiaztat. Zer iritzi daukazu eskulturari buruz?

- Behin, Arte ederrak ikasi ditzuan lagun batekin hizketan egon nintzan eta esan zian, bere

ustez eskultura publikuak ez diala errespetatzen, eta karonak, pinturia eta pipak zauzkala. Ni ados nao horrekin, baina uste dot horren atzetik arrazoiaren bat egongo dala, jendiakin kontau gabe ipini dabelako hor. Neri pertsonalki, eskultura bera ez jata asko gustatzen, beste irudiren bat jarriko naban edo zubixa dauan moduan laga. Baina behin hor ipini dabenez, etekinen bat atera biharko jako.

- Elgoibarko zenbait lokal ere margotu dituzu.

- Bai, beste batzuekin batera Txuri-Beltz tabernia eta Gaztetxia margotu ditzut. Nik aukeratu ditzuten alorrek diseino grafikua eta eskultura dian arren, pinturia ez dot butertzen, eta paretetan pintatzia asko gustatzen jata, igual papelian edo lientzuan baino gehixo. Toki bakoitxerako idea bat landu dogu, lekuak berak eskatzen dabana, eta horren arabera ordu gehixo edo gutxio sartu ditzirgu. Goguan eta biharran arabera ere margotu izan dou.

- Belgikan ere izan zara ikasten, ezta?

Erasmus bekakin egon nintzan han. Hemendik urtetzia oso diferentia da eta merezi du. Han, ikasle kopurua txixixaua da baina ikasketa mailan gu baino aurreratua daude. Artistentzako irtenbidiak ere ugari xauak dia, bai esposiziuen arluan, bai lan aldetik eta baitxa esparru artistikuan ere.

- Zein asmo daukazu etorkizunerako?

Nere intentziva irakasle lanpostu bat lortzia da, baina gaur egun lan kontua nahiko zaila dao. Norberan obra pertsonalak lantzeko denboria ematen daban lanpostu bakarretakua dalako nahiko nuke lanpostu hori. Ezer lortzen ez badot diseino gralikuakin hasiko naiz.

BON ARREGI

gESTEEI ESANA

"Fakultatean, musean ikasi beharrean, hadirudi kartelak egiten erakutsi ziotela".
ZIGOR BENGOETXEA, lat2una.





e r'ne
efxavviz

urne Etxaniz, 65 urteko elgoibartarra, 1956an ezkondu zen eta Elgoibartik Bordelera (Frantzia) alde egin zuen. "Garai hartako egoera politikoa ez zen egokixena eta bizilekuz eta bizimoduz aldatzia erabaki gendun". Izan ere, Bordelen jaio zen bere lehen alaba. Senarraren lana zela-eta, Atlantikoa zeharkatu eta Kanadam joan zen Agume, "10 urte in nitxuan Montrealean. Oso herrialde edarra da Kanada, paisaje ikusgarriak ditxu eta nere beste bi alabak han jaio zian. 68xan berriz Elgoibarrera bueltatzeko ordua zala erabaki naban, baina senarra han geratu zelan kontuengatik. Duela 25 urte, berriz ere jaiotena utzi eta Sopelara jun nintzan bizitzera". Agurnek kontatu digunez, oso lasai bizi da Sopelan, "hona etorri ginanian ixa jenderik bizi ez zan herri txiki bat zan eta oin, berriz, ikustekua da zela hazi dan. Kostaldian dauan herri oso politxa da, Plentzia eta Butroiko gaztelutik oso hurbil. Bilbotik eta Bizkaiatik jende mordua inguratzen da, bai udan, eta baita urte guztiko asteburuetan ere". Elgoibarko familia eta herritarrak gogoan ditu, eta astero egiten du osteratxo bat edo beste arna bisitatzeko. Bestalde, margotzea asko atsegin duela aipatu digu, "Ecenarro zana euki naban maisu, eta batez ere negua aprobeztatzen dot margotzeko".

Atiph.
ner-
liano BipRIAX
**bidaia agentziak
babestutako atala**
Foruen enparantza, 3
Tet: 943 74 39 1 .2

Josefa Gerriti Garate

(1 901-1992)



- 1901eko abuztuaren 18an jaio zen Urruzuno bailarako Urruzuno Berri baserrian. 3 anai-arreba izan ziren, bera bigarrena. Sasoi hartan baserri inguruan eskolarik ez zegoen arren, Josefak izan zuen Madalako eskolara joateko aukerarik.
- Gaztetatik hasi zen baserriko lanak egiten. Langile amorratua zen eta era guztietako lanak egiten zituen. Koskortu zenean, astoa kargatu, eta txukun prestatuta herrira jaisten zen esnea eta baratzeke jeneroak saltzera.
- Garaiko ohiturei jarraituz, neska koadrilan joaten zen inguruetakoa erromerietara eta hauetakoa batean, Kurutzetan, bilatu omen zuen senargaia.
- 19 urterekin ezkondu zen Maiorta baserrira, bertako Domingo Elustondorekin, eta 7 seme-alaba izan zituzten. Domingok ehiza zuen gustuko eta erbi ehiztari famatua izan zen.
- Josefak baserriko lanak gogor egiten jarraitu zuen, baita baserriko produktuak kalean saltzen ere.
- Familia hasi ahala, seme-alabak hantu eta Urkiolako San Antoniora, Arratera eta beste hainbat lekutara osterak egitea gogoko zuen.
- San Lorentzoko jaiak ere asko gustatzen zitzaizkion. Etxeko amona apaindu eta Artazo baserrira joaten zen kartetan jokatzera. Bestalde, sukaldari trebea zenez, sukaldea jendez gainezka izaten zuen jaiak irauten zuten bitartean. Benetako sanlorentzotarra egin zen.
- Emakume zintzoa eta sinesmen handikoa zen, legezkoa. Oso ezaguna zen herrian eta famili giroa, jostea eta euskal kantak atsegin zituen.
- Erorketa baten ondorioz elbarrituta geratu zen, eta 1992ko uztailaren 22an hil zen, 91 urte zituela.

Juanito Gorostiza

**HERRI-GAIN
ERRETEGIA**

San Pedro auzoa, 4
Tr 943 74 30 40 ELGOIBAR



t;s'

Urrutira deitu gabe
bertakook segituan
konponduko dizugu
igogailua

943 20 35 15
ABERIAK 943 20 31 25
Bista Eder, 11 (sotanoa)
e 20600 EIBAR



A

ste honetako bi argazkiak **Angela Zabaleta Aizpitartek** ekarri dizkiugu. Lehenengo argazkia 1916koa da. Bertan, Txinako dizbanuti bateko obispoa izan zen Aita Agirre agertzen da, eta Elgoibarrera egindako bisitaldi batean, beste apaiz batekin batera, *Kakatza*

sagardotegian izan zen bertako familiarekin. Miguel Aizpitarte Ordorikak, Josefa Etxaniz Etxeberriak eta beraien 7 seme-alabek asko eskertu zuten bisita. Hori dela-eta, argazki hau atera zuten. *Kakatza* baseniaren aurrean aterata-

ko argazkian agertzen direnak honako hauek dira:

Goian, ezkerretik eskumara, **Julian Aizpitarte (*)**, **Jabier Aizpitarte (t)**, **Mikaela Aizpitarte (t)**, **Petra Aizpitarte (t)** eta **Toribia Aizpitarte (t)**. z

Behean, ezkerretik eskumara, **Miguel Aizpitarte (t)**, **Aita Agirre (t)**, **Juan Jose Aizpitarte (t)**, **Don Justo** apaiza (t), **Josefa Etxaniz (t)** eta **Nikolasa Aizpitarte (t)**.

Bigarren argazkian *Basarte (Kakatza)* baserria agertzen da. 3 eraikin zeuden elkartuta, etxebizitza, "sapaitxa" eta sagardotegia. Bolatoki bat ere bazegoen.

Elgoibarko eta Eibarko jende ugari joaten zen bertara. Baserria Azkoitiko bidearen hasieran zegoen, gaur egun Basarte kalea dagoen lekuan.

Cordon, Vilarchao, c.b.

DEKIRAZICDA

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK,
SINTASO1A, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK,
GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke, 7 behea. Tel: 943 74 28 74-74 05 70


PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
San Roke, 30 behea. u 943 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA



"Esasoau

agiteari diogun beldurra

beharko genuke



Borja Uriarte

a Adina: 28 urte.

- Zaletasunak? Musika entzutea eta zinemara joatea.
- Miresten duzun kirolari bat? Txikitan Arconada zen nire idoloa.
- Zenbat irauten dizu bainujantzi batek? 4 edo 6 hilabete besterik ez.
- Uretako txapelarekin ala gabe gusturago? Txapelarekin gusturago.

-Mutriku-Deba trabesian hartu duzu parte. Zer moduz? - Aurtengoan ez dut beste urte batzuetan adina disfrutatu. Azken 5 urteotan itsasoa nahiko bare egon da, baina larunbatean haizeak gogor jotzen zuen eta itsasoa ez zegoen igerian lasai egiteko moduan. Haizeak olatuak sortzen ditu eta igeri egiteko erritmoa olatuetara egokitu behar da. Olatuak dandean, kostaldetik aldentzea komeni da, baina horrek erreferentzia galdularazten du, eta noizean behin burua altxa beharra neukan non nenbilen jakiteko.

-Jende berri gutxi animatzen da proba hau egitera, ezta? - Bai hala da. Elgoibartar asko ibiltzen da igerilekuan, baina gutxi ausartzen dira itsasoa igeri egitera. Itsasoa igeri egiteari diogun teldurra galdu beharko genuke. Hain zuzen, proba honen helburua horixe da, jendeari kirol hau ezagutaraztea. Dena den, lehen urtean 13 igerilari izan ginen eta aurtun, berriz, 38 izan gara. Partehartzaile kopurua, beraz, gorantz doa.

-Zerbait jan edo edaten al duzue igeri egiterakoan? - Ordubete denbora laburregia da egarririk edo goserik nabaritzeko. Dena dela, proba luzeagoetan badute zerbait jateko eta edateko ohiturarik.

hartu al duzu parte proba luzeagoetan edo gogorragoetan? Ez. Duela 5 urte, Mutriku-Deba igeriketa trabesia sortu zenetik, edizio guztietan hartu dut parte, baina inoiz ere ez distantzia luzeagoko probetan. Egia esan, tan-keran honetako proba gutxi antolatzen dira inguruotan. Triatlويتan ere aritu izan naiz, baina igeriketa probak 1.500 me-

trokoak izaten dira eta Mutriku-Debak, berriz, 3 kilometro ditu.

-Zein dira itsasoan edo igerilekuan igeri egitearen arteko ezberdintasunak? - Itsasoan olatuek, korronteez, eguraldiak eta erreferentziarik ez edukitzeak asko oztopatzen dute igeri egitea. Nahiz eta igerilekuan baino gehiago flotatzen duen gorputzak gatzaren eraginez. Gainera, behin hasiz gero, ez dago atzera egiterik edo inon atsedean hartzerik. Hala eta guztiz, igerilekua baino dibertigarriagoa da. Igerilekuan igeri egitea mekanikoagoa eta aspergarriagoa da.

batek Bilbotik Donostiarako trabesia igerian egin berri du, zer iruditzen zaizu? - Meritu handia dauka. Oso proba gogorra da eta sikologikoki oso buru gogorra izan behar du horrelako distantzia igerian egiteko. Dena dela, Mutriku-Deba trabesia bukatu zuen azkenengoak igerilari honek adina meritu du. Garrantzitsuenorbera bere buruarekin gustura geratzea da.

-Igerilekuko monitorea zarenez, zer da zailagoa: Mutriku-Deba Trabesia igerian egitea ala ikasleek kaso egitea? - Dudarik gabe, askoz enazagoa da Mutrikitik Debara igerian joatea. Hori horrela da eta ez dago beste erremedio-rik, umeez kaso egingo balute, ez lirateke haurrak izango.

-Zer egiten duzu kloro usaina kentzeko? - Usainera ohitu egin naiz eta jadanik ez dut nabaritzen. Txarrena kloroak azala erretzen duela izaten da. Kremak erabiltzea gomendagarria izaten da.

7 kokEari berri litxata litu oraingoz

Jadanik hasi dira *Haundi-ko* jokalaria- datorren denboraldia prestatzen, eta joan den asteleheneko lehen entrenamenduan aurpegi berri asko ikusi genituen. Oraingoz 7 dira taldeak fitxatu dituen jokalaria-riak: Josu Bastida atezain azkoitiarra, Ruben Cobos eibartarra, Alkorta eibartarra, Aitor Castillo azkoitiarra, Baquē eibartarra, Unai Bravo debarra (Eibarko taldeak zeditua) eta Carlos Conde elgoibartarra dira Julen Konderen zuzendaritzak ekarri dituen jokalaria-riak. Unai Zulaika elgoibartarra, berriz, duela bi urte futbola utzi eta ben-iro itzuli da *Haundira*. Bestalde, taldea utzi duten hainbat jokalaria-ri daude. Honako hauek dira *Thuidi* laga dutenak: Eneko, Igor



Argazkian agertzen direnak jokalaria-ri berriak dira. Hiru eibartar, bi azkoltiar, debar bat eta elgoibartarra bestea.

Prieto, Portu, Gurrutxaga, Belartietia, Mikel, Gorka, Leonardo, Treviño eta Gaizka. Azken honek belauneko lesio baten ondorioz, futbola uztea erabaki du. Dena dela, Julen Condek adierazi digunez, "oraindik taldea osatu gabe dago eta pare bat edo hiru jokalaria-ri gehiago fitxatzeko asmoa daukagu". Aurrendenboraldia talde nagusiarekin egingo duten jokalaria-ri gazte elgoibartaria-ri dagokienez, "Zubiaurre, Laskurain, Polo, Ander, Ignacio eta Manolo elgoibartarra-ri arituko dira aurrendenboraldian talde nagusiarekin. Baina ikusteko dago zer mailatan jokatu duten datorren denboraldian, hori entrenatzailearen esku baitago", aipatu zuen Condek.

Gorka Mujika eibarla jarraian irabazi du

8 elgoibartarrek hartu zuten parte proban



Argazkian igeriketa trabetesian parte hartu zuten 8 elgoibartarrak ikus ditzakegu Debako hondartzan.

Pasa den larunbatean, hilaren 10ean, jokatu zen 5. Mutriku-Deba Igeri Trabiesia. Elgoibarko Urgazi Triatloi Taldeak antolatzen duen proban, 31 gizonak eta 7 emakumeak hartu zuten parte, guztira 38 igerilarik. Eguerdiko 12:30ean hasi zen proba Mutrikuko kaiatik, eta Debako hondartzaraino dauden 3 kilometroak igerian egiten lehenengo Gorka Mujika eibartarra izan zen. Aipagarria da, proba hau irabazten duen bosgarren aldia izan zela. Duela 5 urte proba sortu zenetik, bera izan da garraile eta aurten ere argi utzi zuen proba honetan duen nagusitasuna. Bere denbo-

IesgaPPen Eldiz Ilgerral Urrallesla

ELGOIBARTARREN SAILKAPENA:

- 1- Ion Zubiaurre 51' 40"
- 2- Borja Uriarte 52' 22"
- 3- Fernando Etxeberria 55' 08"
- 4- Amaia Revert 56' 26"
- 5- Aingeru Osoro.. 1h 02' 52"
- 6- Iñaki Konde 1h 19' 02"
- 7- Asier Irureta 1h 29' 57"
- 8- Gorka Sastre (erretiratua)

ra 44' 44" izan zen eta bigarren sailkatuak, Iban Bedilaunetak, alegia, 47' 34" behar izan zituen proba bukatzeko. Dena den, lehendabizikoentzat ez zen trofeorik izan, eta proba bukatzea lortu zuten guztiek kamiseta eta opari txiki bana jaso zuten. Elgoibartarrei dagokienez, 8 herritarrek eman zuten izena. Hauetatik, Ion Zubiaurre gaztea izan zen Debara iristen lehena. Sailkapen orokorreko bosgarren postuan amaitu zuen. Borja Uriarte izan zen bigarren elgoibartarra 52'22" denborarekin. Azkenik, Amaia Revert izan zen lehen neska elgoihartarra, bere denbora 56'26"koa izan zen.

Mikel Leon eta Jon Eugi izan dira Gaztetxeke Xake Txapelketako irahailleak

Zubi-Ondo Elkartek eta Gazte Asanhladak elkarlanean antolatutako Xake Txapelketa jokatu zen uztailaren 8an Gaztetxean. Txapelketan 10 lagunek hartu zuten parte, bi txapelketatan banatuta: batetik, xakean federaturik dauden jokalariek aritu ziren, eta bestetik, federatu gabekoak. Federatuentzako txapelketan 4 xakelari aritu ziren, eta Mikel Leon gaztea izan zen irabazlea. Bigarren sailkatua Jon Esnaola izan zen. Federatu gabekoen txapelketari gokienez, 6 lehiakide elkarren aurka aritu ziren eta jokatu zituen 5 partidak irabazi ondoren, Jon Eugi izan zen irabazlea. Partida guztiak 10 minutura jokatu ziren.



10 lagunek hartu zuten parte Gaztetxean jokatu zen Xake Txapelketan.

ni,Q.J_ Li-ir_92

Futbol 7 Txapelketa

- Bar Las Torres 0- Kaskima Brewers 1
- Bar Gure Toki 0- Costo de Doñana 8
- Inkision 1- Laranja Mekanikoa 0
- La Tarantela 2- Antzarrak 4
- Kadar C.F.13 - Bar Margon 1
- Grassopers 14 - A.P.T.C.P.K.Dos 0
- Faustino Vil 7 - Ei Que Sobra 3
- Elur F.S. 0- Zergatik ez 1
- Olaso F.C. 2 - Tiroriro Taberna 6
- Zurdunak 0 - Elgoibar F.S. 1
- F.C. Los Cillones 7- Los Txatos 3
- No nos patrocinan 5- Malas Hierbas 11

Tenisa,

- Angel Castro 8- Fernando Rico 0
- Diego Monedero 5- Martin Agea 8
- Jaime Mendiguren 7- Kike Zubiaurre B
- Gorka Merino 8- Bikentzi Urkiri 1

A G. E N D. A

Tenisa,

- tijaralea, 18
- 10:06 A. Orlederra - J. Mendiguren



Olaso, 23 , 943 74 20 37

UZ I AILAK 29, EGOIBARKO XI(I), NAZIOARTEKO FOLKLORE JAIALDIA

Clavashiaio ata illexicake danizaplek harl dute parte Haritz-ekeme hea

21.2

(minutu batekoa)

Akotan gertatu ohi den bezala, musikari baten heriotzak atsekabea dakar, gebienbat bere musika maite dutenengan. Oraingoan Mark Sandman izan da, Morphine taldeko abeslari eta baxujolea. Orain dela astebete, Erromako kontzertuan, bihotzekoak emanda hil zen bigarren abestiaren amaieran. Talde berezi honetako buruak 47 urte zituen. Ahots goxoa eta lodia zen erretzaille amonutua izatearen ondorio zuzena. Berak zeukan taldekideen artean pertsonalitate gogorrena eta horrek izan zuen eraginik Morphine hirukotean, formazio berezia edukitzeaz aparte, noski. Mark Sandman bi sokadun "slide" haxua, Dana Colley saxo baritonoa eta Billy Conway ziren taldekideak.

Ez dut uste abeslariaren heriotza aitziakiatzat erabiltzeak inongo kalterik egingo digunik, batez ere beraien musika urteetan jarraitu dugunoi. Beghurte handia zor diogulako, musika ederra egin duelako, "Good" edo "Cure for pain" disko izugarriak egin dituztelako, bere ahotsa zuzenean itzali delako, "The saddest song" abesti tristee-na delako... hainbat arrazoi dauzkat abeslari, baxujole eta musikari honen zereginak goraiatzeko (beti ere bere bi lagunak laguntzaz). Baina bakarria goraiatzekotan... Talde baten pertsonalitatea somatzeko entzun egin behar da, ez irakurri. Uda ona pasa eta musika entzun/bizi.

Iban. Urizar



Elgoibarko XIII. Nazioarteko Folklore Jaialdia uztailaren 29an izango da Olaizaga Kiroldegian. Oraingo honetan Chuvasia Errepublikako Abesbatza eta Dantzari Taldeak eta Mexikoko Colima Unibertsitateko Ballet Folklorikoak jardungo dute Haritz Dantzari Taldearekin batera. Saioa gaueko 22:30ean hasiko da.

Jaialdia gaueko 22:30ean hasiko bada ere, jarraituko I 9:00etan, Udaletxeko Areto Nagusian Udalak eta Haritz Euskal Dantzari Taldeak harrera ofiziala eskainiko diete partaideei. Aurtengoan, Portugaleteko Nazioarteko jaialdiak bere XXV. urteurrena betetzen duela-eta, Elai-Alai dantzari Taldekoak izango dira protagonistak. Izan ere, Jose Inazio Sarasua Haritz Dantzari Taldeko zuzendariaren esanetan, "Elgoibarko Nazioarteko Folklore Jaialdiaren 13. edizioa beteko dugu aurten, eta hasiera-hasieratik, Portugaleteko Elai-Alai taldearen laguntza ordainezina jaso dugu. Aurten, eskerrak ertateaz gain, zorionak ere eman nahi dizkiegu, Euskal Herrian hain ezaguna den Portugaleteko Nazioarteko Folklore jaialdia 25. aldiz antolatu baitute".

Ohi den bezala, jaialdiari Haritz Dantzari Taldeak emango dio hasiera. Haritz-en emaldiaren ostean, Chuvasia Errepublikako Abesbatza eta Dantza Taldearen txanda izango da. Errepublika hau ezaguna izan da bere folklore, arkitektura eta poesiarengatik. Gaur egun profesionalaz osatuta dago talde hau, eta beraien egitarauak bertako jendearen eta beraien historiaren entziklopedia dirudi. Abeslari, musikari eta dantzari trebe hauen jardunak bertako jendearen izaera atsegina, lurrari dioten maitasuna, ifiauteriak, umorezko dantzak eta ezkontzetako pasarteak adierazten ditu.

Jaialdiarekin jarraituz, Mexikoko Colima Unibertsitateko Ballet Folklorikoak Mexikoko tradizio kulturalaren berri emango du. Izan ere, I 983tik hona, Rafael Zamarripa maisuaren zuzendaritzapean, Mexikoko tradizio kulturala berreskuratzen eta birsortzen dihardute. Ikuskizu-



Chuvasia Errepublikako Dantza Taldekoek argazkikoan antzeko jauzi harrigarriak eskainiko dituzte.

nean bi folklore mota bereizten dituzte: alde batetik, izaera prekoloniarreko dantzak eta melodiak, eta bestetik, Jalisco inguruko Mariachi izenez ezagutzen dugun folklore herrikoa. Azken hau laguntzen orkestra bat arituko da.

Sarrerak salgai

Urtero bezala, Txankakua Merkatari Elkartearen laguntzaz, sarrerak aurrez eskuratu daitezke Txankakuako dendetan 500 pta.n, 200 pta.n jubilatuentzat, 16 urtetik beherakentzat eta gazte txartela dutenentzat. Sarrerak aurrez erosten dituztenen artean, 10.000 pta.ko 5 sari zozketatuko dira Folklore Jaialdiaren hasieran.



Mexikoko Colima Unibertsitateko Ballet Folklorikoak euren herriko tradizio kulturalaren erakustaltha egingo du.

Yatz Albarra

I KASLEA

2 2 MLq4CE



1 Merezi al du bizitza? Eta Elgoibarren bizitza? Bai, Eta Elgoibarren bizitza ere bai, hemen jaio nintzen, bertan bizi naiz eta gustura nago.

2 - Eutanasia praktikatu al zenuke familliako batengan? - Bai, baietz uste dut.

3 - Hil eta gero? Ezer ere ez.

4 - Lehenengo ni eta gero besteak.

- Norbera ondo egon behar da besteekin ondo egoteko.

5 - Nori kontatzen dizkiozu arazoak? - Mutilari, lagunei edo gurasoei.

6 - Zein da zure bizitzako anbizioa? Eta bizioa? - Anbizioa, nire buruarekin gustura sentitzea. Bizioa, beffiz, erretzea.

7 - Sinesten al duzu politikan? Emango al zenuke botorik?

- Ez dut politikan sinesten eta azken hauteskundeetan ez nuen botorik eman.

8 - Noiz joan zinen azkenekoz manifestaldi batera? - Donostian, unibertsitatean euskal adarraren aldeko manifestazio batean izan nintzen.

9 Euskalduna naiz eta harro nago?

- Bai, dudarik gabe.

10 - Zerk galeratzen dizu loa?

- Batzuetan azterketek, baina jeneralean ondo egoten dut lo.

11 - Elgoibarko Gaztetxean sartzen al zara? - Bai, baina beste taberna batera joango banintz bezala da. Bertako ekintzetan

ez dut parte hartzen.

12 - Gurasoek asko sufritzen al dute zurekin? Ez, ez dut uste.

13 - Zer da gurasoengandik gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien?

- Gehien, alabengatik egiten duten sakrifizioa. Gutxien, berriz, beraien buruarekin gutxi pentsatzen dutela.

14 - Laguntzen al duzu etxeko lanetan?

- Gutxi, baina lagundu behar denean egiten ditut etxeko lanak.

15 - Alkoholik gabe ondo pasa daiteke? Bai. Hala ere, noizean behin edatea eta mozkor bat harrapatzea ondo dagoela iruditzen zait.

16 Irakurri duzun azken liburua? - Isabel Allenderen Paula.

17 Sexua maitasunik gabe ala maitasuna sexurik gabe? Sexua maitasunarekin.

18 - Birjinitatea traba ala bertutea? - Hitz horren benetako zentzua ez dakit zein den, beraz, ez bata eta ez bestea.

19 - Hornosexual batek maite zaituela esango balizu?

- Orain arte ez naiz egoera horretan egon

eta ez dakit nola erreakzionatuko nukeen.

20 - Sinesten al duzu betirako maitasunean? - Ez. Agian esfortzu handi batekin lor daiteke, baina nik ez dut horretan sinesten.



MEKANOSA

Errosario, 30

Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- * IDAZMAKINEN SALMENTA
- ETA KONPONKETA
- * MULTIKOPISTAK
- * FOTOKOPIADORAK
- * PLANOEN BIRREGILEAK
- * ERLOJU INDUSTRIALAK
- * MARRAZKETA MATERIALA
- * INFORMATIKA
- * FAX

LEKU ONA

Taberna

- Plater konbinatuak
- Ogitaratekoak


O^o ec tsajaid/

Mendarozabal ^13 - Tel. 943 75 60 65 - MENDARO

i nondoTABERNA

Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu
eta asteburuetan 9:00etan.

Pedro Muguruza, 2 • Tel: 943 74 00 15



ilOSE portu'ai

(Txema)

Mota guztietako pintura
eta enpapelatuak.
Zoluak, moketak, sintasola,
kortxoak, etab. jartzen dugu.

San Bartolome, 28-1 ezk • Tel: 943 74 12 55 • Mobila: 629 44 23 14

INTERESEKO

OSASUNA

Anbulategia:

Larrialdiak 943 461111
Txanda hartzeko . 943 743354
Planning-a 943 742950
Aholikoko Anonimoak . 943740385
D.Y.A (anbulantzia) . 943 464622
Gurutze Gorria 943 743864
Mendaroko Ospitalea.. 943 032800
Odol Emaileak ... 943 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak .. 943 740442
PESA (Eibar) .. 902 10 12 10
Taxi geltokia. 943 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua.. 943 744366
Udal Kirol Palonatu.. 943 744415
Kultura Zerbitzua.. 943 742158
Mendaroko Udala 943 756100
Ongizate zerbitzua 943741008
Udaletxea 943 741050
Udaltzaingda..... 943 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra 943 741626
Kiroldegia 943 744415
Kontsumo Bulegoa 943 743088
Liburutegia 943 743525
Musika Eskola .. 943 742145
Mintxeta 943 744315
Parrokia 943 740842
Postetxea 943 741547
Gaztetxea 943 743572

ADINEKOEN ETKEAK

San Lazaro Egoitza.. 943 740296
Zaharren Biltokia ... 943 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola ... 943 74 21 41
HHI (EPA) 943 74 08 80
Herri Eskola 943 74 08 79
I.M.H. 943 74 41 32
Herri Institutua

Arreiturre 943 74 02 67
Ezenarro (Meka).. 943 74 44 80
Ikastola 943 74 44 41
Pilar Ikastetxea... 943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 943 74 41 12
El Diario Vasco 943 74 40 73
El Gorreo EspailoL. 943 74 10 82
Gara 943 10 84 21
Zazpiki Irratia ... 943 74 34 74

16 ostirala

22:30 AIRE LIBREKO ZINEA
"La sombra del faraon"
Plaza Handian
Antolatzailea:
Ongarri Zine Kluba

17 larunbata

22:30 LOS PEREZ DE
NOCHISTIAN MARIATXI
TALDEAREN EMANALDIA
Herriko Antzokian
Sarrera: 1.000 pta.

22:30 AIRE LIBREKO ZINEA
"Charlie & Louise"(Euskaraz)
Plaza Handian
Antolatzailea:
Ongarri Zine Kluba

18 igandea

18:30 GELATXO
Plaza Handian

23 ostirala.

22:30 AIRE LIBREKO ZINEA
"The Faculty"
Plaza Handian
Antolatzailea:
Ongarri Zine Kluba

24 larunbata

22:30 AIRE LIBREKO ZINEA
"El principe de Egipto"
Plaza Handian
Ongarri Zine Kluba

25 igandea

9:00 SARGOATERA MENDI
IRTEERA
Madalatik
11:30 MEZA SARGOATEN
Ondoren, salda eta txorizo banaketa
12:30 BERTSOLARIEN SAIOA
eta TRIKITILARIEKIN
ERROMERIA
Antolatzaileak:
Elgoibarko Izarra, Morkaiko,
DEBEMEN, Sallobenteko Jai
Batzordea eta Udala.

30 ostirala

22:30 AIRE LIBREKO ZINEA
"Trabajo basura"
Plaza Handian
Ongarri Zine Kluba

31 larunbata

22:30 AIRE LIBREKO ZINEA
"Mi Marciano favorito"
Plaza Handian
Ongarri Zine Kluba

11 11€ W112

FARMAZIAK

Egunez Gaez
17 Etxeberria Etxeberria
(Santa Ana kalean)
18 Etxeberria Etxeberria
(Santa Ana kalean)
19 Zabaleta Zabaleta
20 Bidasolo Bidasolo
21 Etxeberria Etxeberria
(Santa Ana kalean)
22 Anduaga Anduaga
23 Bidasolo Bidasolo
24 Etxeberria* Zabaleta
(Santa Ana kalean)
25 Etxeberria* Zabaleta
(Santa Ana kalean)
26 Etxeberria Etxeberria
(Santa Ana kalean)
27 Anduaga Anduaga
28 Bidasolo Bidasolo
29 Etxeberria Etxeberria
(Santa Ana kalean)

30 Anduaga Anduaga
31 Bidasolo Bidasolo
*leguerdiko 2ak arte)

ESCALA: Rekalde, 1
Soraluze. Tel: 943 75 16 38

ANDUAGA: Heniko
enparanta 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

ZABALETA: Kalebarren, 9
Soraluze. Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA

18 igandea
Zabaleta
25 igandea
Doha Mercedes
31 larunbata
Idarraga

ERRE III • KI ■ III III • • • • • ■ IK • • • •

11 NE A



Zuzendaria: Joseph Vilmaier.
Antzezleak: Heiner Lanterbach,
Corima Harfonnch, Fritz Und.

Charlie & Louise

Charlie eta Louise 10 urteko bizkiak dira, baina txiki-txikitatik banatuak. Gurasoak banatu zirenetik, bat bere amarekin Hamburgon, eta bestea, aitarekin Berlinen bizi izan dira; ez dute elkar inoiz ikusi ezta elkarren berririk izan ere. Bat-batean, biek Eskozian udaleku batean topo egiten dute. Hura bai ezustekoa...! Lehenengo susto hori pasa ondoren, eta beren egoeraren berri azaldu eta gero, bi ahizpak irudimen handi-ko plana jartzen dute martxan.

||| ZRZR Z ER ■ • RE R RZ IE R EI R

EI 11 • R • ■

SALLOBENTEKO JAIK

Abuztuak 7, larunbata

18:00 Jaien hasiera iragartzeko kanpai jotzea.

18:30 Errosarioa eta meza auzoko hildakoen alde.

Ondoren, makallau-jana.

22:30 Bolo saioak eta gau pasa Miramar taldearekin.

Abuztuak 8, igandea

11:00 Meza

Ondoren, salda eta txorizoa.

Jarraian, bertsolariak: Amaia Agirre eta Nerea Elustondo.

12:30 Gazteen pilota partidua.

14:30 Lagunarteko bazkaria, (Gardokirekin).

18:00 Herri kirolak: Saralegi anaiak.

Ondoren, zezenak.

22:00 Bolo saioak.

23:00 Erromeria Gardokirekin.

Abuztuak 9, astelehena

17:30 Haurrentzako jolasak eta zezenak.

Ondoren, txokolatada.

20:30 Bolo saio berezia emakumeentzat.

23:00 Erromeria Txillarre eta Pablorekin.

Abuztuak 10, asteartea

11:00 Meza nagusia.

Ondoren, aurrekua.

13:00 Pilota partidua auzoko fenomenoekin.

17:30 Plater apurketa herrikoia.

22:30 Bolo saioa.

23:00 Erromeria Gelatxorekin.

SAN ROKEKO JAIK

Abuztuak 15, igandea

17:00 Jaien hasiera iragartzeko kanpai jotzea eta txupinazoaren jaurtiketa.

20:00 Errosarioa.

20:30 Afaría Larrafiaga eta Agirre bertsolariekin eta Elustondo eta Larrafiaga txiste kontalariekin.

Abuztuak 16, larunbata

8:00 Txapliguak eta txupinazoa.

11:00 Meza nagusia bertako elizan.

Jarraian, Haritz Dantza Taldearen saioa.

Berehala, auzoko gazteen herri kirol saioa.

17:00 Erromeria Ostolaza eta Andonegi trikitilariekin.

Ondoren, zezentxoak eta zalditxoak.

23:00 Demaseko en•omeria Ostolaza eta Andonegi

1:00 Bolo saioak

1. saria: 6.000 pta. eta garaikurrak.

2. saria: 4.000 pta.

3. saria: 3.000 pta.

14:00 Anaiarteko bazkaria Jose Gardokik alaituta.

18:00 Herri kirolak: Perurena aita-semeak, Arkaitz Egaña, Harria V.a eta Txapartegi.

Jarraian, zezentxoak eta zalditxoak.

22:00 Erromeria Jose Gardokirekin eta bolo saioak.

1:00 Janariz eta edariz betetako karretilaren zozketa.

• Gure Bide Elkartearen sorreraren 40. orteurreneke ospakizun ekitaldiak

Gure Bide Elkarteak 40 urte bete dituela-eta, hainbat ekintza antolatu dituzte. Uztailaren 19an eta 21ean, Arabar Errioxako ardoaren dastaketa ikastaroa emango dute. Hilaren 21ean, berriz, Cava dastaketa ikastaroaren txanda izango da arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara. Uztailaren 23an, ostirala, bazkideen afaría egingo dute eta *Duo Plaeneci-ren* doinuek alaituko dute afalostea. Azkenik, uztailaren 25ean, Elkarte hildako kideen omenezko meza izango da goizeko 10:30ean. Meza bukatzean, *Haritz* Dantzari Taldeko kideek aurrekua dantzatuko dute bazkideen omenez. Ondoren, bertaratutakoek argazkia aterako dute. Eguerdian, bazkide sortzaileei oroigarri bana emango zaie. Ekitaldian, Antton Barutia Gipuzkoako Txirrindulari Federakundeko kideak, Txomin Perurenak eta Gillermo Garate alkateak hartuko dute parte.

• San Bartelome laietake baserritarren bazkarirako txartelak salgai

Abuztuaren 28an baserritarren anaiarteko bazkaria izango da Zabarran Biltokian. Bazkari txartelak Kultura zerbitzuan, Kultur Etxean, egongo dira salgai goizeko 11:00etatik 13:00etara bitartean. Txartelaren zenbatekoa 3.000 pta.koa da.

ONGARRI
zine kluba



Zuzendaria: Russell Mulcahy.
Antzezleak: Jason Scott Lee,
Louise Lornhard, Michael Lerner.

La sombra del tarao

Russell Mulcahy, Los Inmortales sailaren egileak, Egiptoko arkeologi aztarnetan kokatzen du beldurrezko istorio fantastiko hau. 1948. urtean arkeologo bat anistorik utzi gabe desagettuko da Egipton. Urte batzuk geroago, bere alabak desagertze misteriotsua aztertzea erabakiko du. Aita bilatzen dabilena Taloseko momiarene sarkofagoarekin topo egin eta Londreseko Britainiar Museora eramatea erabakiko du. Momiak inuseoko erakusgarri hutsa izatea baino asmo ankerragoak ditu ordea, eta bilketak bata bestearen atzetik hasiko dira.

ZI
NE
A

Lana

• ESKAINTZA •

• Kamarera behar da tabernarako. Esperientzia baloratuko da. sar 943 74 31 17

• Bi ume zaintzeko neska euskalduna behar da, n• 943 74 02 94 (21:30etatik aurrera deitu).

"La Unión Caza y pesca" elkartean garbiketa lanak egiteko ernakumea behar da. Tr 943 74 10 42. Maraquis de Pablo.

• Elgetako enpresa batek kontabilitatean eta frantsesa menperatzen dituen pertsona bat behar du. a• 943 78 80 06 (Itziar. Astelehena eta asteartean 8:00etatik 15:00etara)

*ESKAERM

• Barne diseinuan titulaturako neska langilea eskaintzen da edozein proiektu eta dekorazio lan egiteko. Tr 943 74 31 20

• Uztailean goizez umeak zaintzeko edo antzeko lanen bat egiteko prest gaude. Neska euskaldunak eta gazteak gara. Tr 943 74 09 49 (Gauzez deim. Sara)

• Klinika laguntzailea eskaintzen da gaixoak edo adarretuak zaintzeko. 12 943 74 04 86

• 32 urtetako neska eskaintzen da umeak eta pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientzia daukat. Tr 943 75 51 93

• Sukaldaria eskaintzen da sukaldarako, umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Tr 943 74 38 85. Gloria (goizetan deitu)

• Esperientziadun emakumea gaixoak zaintzeko prest dago. n. 943 74 04 86

Garajeak

• Pista beltzaren azpian marradun garajea alokatzen da. Tr 943 74 19 55.

1 Garaje itxia alokatzen da Kirol-degi parean (San Roke). a 943 74 06 09

• Garajea alokatzen dut Arregitorre kaleko 6. zenbakian. 12 943 74 02 63

Partikularrak

• Uztailean frantseseko klaseak emango dizkidan norbait behar dut. n. 943 74 22 37 (Eguerdian deitu).

Bestelakoak

• Astelebensan, hilak 12, AIWA markako walkmana galdu nuen Plaza Handian. g 9437432 65

• Udako hilabeteetan txakurrak, katuak eta txoriak zaintzen dira Bergaran. Informazio gehiago: te 608 77 55 84/943 76 14 79

• Bezero onak dituen ileapaindegia traspasatzen da atenditu ezin delako. Aramaion. Tr 945 44 50 35/945 44 52 94 (Miren)

• Ikaslea behar da datorren ikasturtean Deuston pisua konpartitzeko. Tr 943 74 05 71 (Olatz) /943 74 15 69 (Ane)

• Irailetik aurrera Elgoibarren pisua konpartitzeko norbait behar dut. n. 639 65 17 46

• 250 m2ko lokala alkilatzen dut, almazena jartzeko egokia. Ermuaranbide, 14-2. eskuma. Gnm dauka. Tr 943 74 40 54/630 04 99 09

• Herri erdian dagoen taberna traspasatzen da atenditu ezin dugulako, Tr 943 74 26 09 (16:00etatik 19:00etara deitin)

• Somierra erregalazten dut. Berria eta egoera onean. 1'80x90. Tr 943 74 32 01

• Katakurne siamesak erregalazten ditut, Helbidea: Urasandi kalea 51-3. erdia.

• Taberna traspasatzen dut, Ekonomikoa, Errenta baxua. Tr 943 74 10 02

• Logela bat alokatzen da Arregitorren. Tr 943 74 18 81. Juani (Iluntzean deitu)

Salerosketak

• Renault Express-a salgai. BI-AP, 160.000 Km. Errebisioa egin da eta egoera onean. Prezio ona. Tr 943 74 28 13.

• Kanping denda altua saltzen da. 2-4 pertsonarentzat. Hall-a eta toldoa dauka. Berria eta muntatzeko erraza. Tr 943 74 27 41.

• Mackinley etxeko kanping denda saltzen dut. 4-5 pertsonarentzat. Tr 943 74 40 15 (Loli).

• Opel Corsa GSI salgai. Tr 943 74 34 64 (Gauzez deitu. Mikel)

• "Ford Escort" autoa salgai. 16V eta 90 zaldikoa. Airbag bikoitza eta ABS ditu. SS-AU. Interesatuek deitu 943 74 20 74 telefonora. (20:00etatik aurrera)

• Bigarren eskuo kitarra espatriot merkea erosiko nuke jotzen ikasitako. le 943 75 60 30

• Opel Corsa 1.0 autoa salgai. BI-AG. Egoera onean. Tr 943 74 36 07

• Wusner karabana salgai, 5 plaza. Ekipatua. Garajea gordeta egon da. Tr 943 74 36 34. Deitu 10:00etatik 12:30era eta 17:00etatik 20:00etara.

• ZZR 600 Kawasaki anotoa salgai. Egoera onean. Tr 630 52 60 52

Agurrak

• Zorionak Jabibiri atzo urteak bete zituelako. San Rokeko kuadraren partez. Bereziki Jontxinpun, Ionart eta Jotaren partez.

• Zorionak Ander Polori, hilaren 18an 11 urte beteko dituelako. Arbra Loinazen eta gurasoen partez.

• Zorionak Hur Ondarza Lobeteri, gaur, hilak 16, urteak bete dituelako. Aitxitxa-amamen eta osaba-izeben partez,

• Zorionak amama Elena eta amama Bitxori laster urteak bete dituztelako. Nagoren eta Joneren partez muxu handi bat.



• Zorionak Joneri gaur 3 urte bete dituelako. Orain handi-handia zara sorgintxo. Nagoreren eta etxekoekin partez

muxu potolo bat.



• Zorionak Nereari eta Ainhoari, hilaren 14an urteak bete zituztelako. Amaia eta Iosuren eta familiaren partez.



• Zorionak Luisa eta Jose zuen ezkontza egunean. Aldapa taberna-ko lagunak.



Zorionak bikote. Bihar, Superman eta Supergirlen jantziak utzi eta ea ganorazko zerbait egiten duzuen behingoz.

• Zorionak Aitor Arreseri, hilaren 21ean 8 urte beteko dituelako. Familiaren partez eta bereziki Unai-eren partez.




• Zorionak Eriki, hilaren 14an 13 urte bete zituelako. Gurasoen eta bereziki anaia Julenaren partez.



• Zorionak Karmelori gaur, hilak 16, 65 urte bete dituelako. Ondo pasa eguna eta jubilatuen ondoren egingo duzunarekin pentsatzen hasi.



• Zorionak prexi. Morena etorriko zarelakoan gaude. Lehengusuen eta osaba-izeben partez.



• Zorionak aita, uztailean 13an urteak bete zituelako. Familiaren eta, bereziki Ioneren partez.



• Zorionak Asierri, uztailean 9an 2 urte bete zituelako. Gurasoen eta atona-amoneren partez.



• Zorionak Maitane txikitar, abuztuaren 5ean 2 urte beteko dituelako. Edo 6 izan dira, Ah ez, 26 izan dira, ezta? Muxu potolo-potolo bat zuk dakizun zoro talde honen partez.



• Zorionak Igonxin. Badakigu udan oso ondo egoten dela kostaldean, baina ea bisitatxoren bat egiten diguzuen barnealdeko.



• Zorionak Ibon Belaustegiti, hilaren 29an 4 urte beteko dituelako. Familiaren eta bereziki anaia Jonen partez ondo pasa.





MENDAROKO UDALAK

Santa Ana

jal zorientsuak

opa dizkizue

herritar guztioi

EL GOIBARKO AZIOARTEA XIII. FOLKLORE JAIALDIA

CHUVASHIA-EUSKADI-MEXICO

*Uztailak 29, osteguna
Gaueko 22:30 ean*

Olaizaga Kiroldegan



tvusiko eta Dontzn
Udal Funclaziou



Aldundia



Sarea



11.111k

Hgoibarko
Kirol Potronatua



Txankakua



Haritz
Euskel Dontzaa Taldea